

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4492

*1089/2020 EBAZPENA, irailaren 28koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Susana Beatriz Urquijo Bustamante andreaki Barrualde-Galdakaoko ESiko Laudioko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak esleitzen zaizkion.*

381/2020 Ebazpenaren bitartez, onartu egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Laudioko Lehen Mailako Arretako Unitateburua izendatzeko deialdi publikoa.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Susana Beatriz Urquijo Bustamante andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hari esleitzea Barrualde-Galdakaoko ESiko Laudioko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Euskal osasun zerbitzu-Euskal osasun zerbitzuaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Susana Beatriz Urquijo Bustamante andreaki esleitzea Barrualde-Galdakaoko ESiko Laudioko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak.

Bigarrena.– Susana Beatriz Urquijo Bustamante andreak bi eginkizun izango ditu: kudeaketa eta asistentzia ematea; eta Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko gerentearen mende egongo da zuzenean eta hierarkian. Bai Lehen Mailako Arretako unitateburu funtzioak egin bitartean bai haiek amaitu ostean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion plazan, eta hari lotutako oinarriko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Ez dira finkatuko, inolaz ere, Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak edo ordainsariak berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da eginkizun horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Interesdunak, eginkizun horietan diharduen bitartean, osagarri berezi bat jasoko du erantzukizunagatik.

Bosgarrena.– Izendapen honek 2020ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gorajotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2020ko irailaren 28a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentea,  
JON GUAJARDO REMACHA.